

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“N-124 errepidea, 25,5 kilometrotik 31,9 kilometrora, bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua” -k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2021eko azaroaren 8an, 721/2021 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Okupatu beharreko eremua handitzea proiektu honetan: “N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 31,90 kilometro puntura arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik banakatua: N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 34,00 kilometro puntura arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua”. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Errepide Zerbitzuak jakinarazi du Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 24ko 87/2015 Erabakia-
ren bidez behin betiko onetsi zela “N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 31,90 kilometro
puntura arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik
banakatua: N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 34,00 kilometro puntura arteko tartea
bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua”, bai eta proiektu horrek eragindako on-
dasun eta eskubideen zerrenda ere.

Horren ostean, ondasun eta eskubide horiek eskuratu ziren, desjabetu, aldi batez okupatu
eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko. Horiek guztiak 2014/113 desjabetze espedientean
jaso ziren.

Aurrekontu arrazoiak tarteko, proiektu horri dagozkion obrak bi fasetan egitea erabaki zen,
eta lehenengo faseak 28,00 kilometro puntutik 31,00 kilometro puntura bitarteko tartea hartu
zuen, honako honen arabera: “N-124 errepidearen 28,00 kilometro puntutik 31,00 kilometro
puntura arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik
banakatua: N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 31,90 kilometro puntura arteko tartea
bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua”. Fase hori gauzatzeko obrak amaitu dira.

Beraz, egiteke daude bigarren faseko obrak, 25,50 kilometro puntutik 28,00 kilometro pun-
tura bitartekoak. Horretarako, honako hau idatzi da: “N-124 errepidearen 25,50 kilometro pun-
tutik 28,00 kilometro puntura arteko tartea bikoiztu eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua;
beste honetatik banakatua: N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 31,90 kilometro puntura
arteko tartea bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua”.

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 11ko 382/2019 erabakiaren bidez behin betiko onetsi
zen proiektu hori.

Hala ere, proiektu horren eragina dela eta, hasieran desjabetutako lurzatiez gain, gehiago
okupatu behar dira. Hori dela eta, kontuan hartu beharreko gehikuntza horiek jasotzen dituen
eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eransten da.

14/100, 34/100, 51/100, 54/100, 58/100, 60/100, 156/100, 157/100 eta 199/100 finkak sortu dira,
foru agindu honen eranskinean jasotako afektazioekin.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren
15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko

ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Era berean, adierazi behar da presaz okupatzeko aukera proiektuari ez ezik, desjabetzea handitzeari ere aplikatzen zaiola, eta, beraz, bidezkoa da eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak presako prozeduraren bidez egitea.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoak aztertuta, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Okupatu beharreko eremua handitzea proiektu honetan: "N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 31,90 kilometro puntura arteko tarte bikoiztu eta autobide bihurtzeko proiektua, beste honetatik banakatua: N-124 errepidearen 25,50 kilometro puntutik 34,00 kilometro puntura arteko tarte bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua", eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Bigarrena. Okupatu beharreko eremua handitzearen ondorioz ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta lurpeko zortasunak ezartzeko.

Hirugarrena. Premiazko prozedura bidez izapidetzea eranskinean zerrendatutako ondasun eta eskubideak gehitzea.

Laugarrena. 32.607,85 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuko 50106.5300.6000002 "Desjabetzeak" partidaren 2022ko konpromiso kredituaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-152/000.21.3.22), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, lehenago, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Armiñonko, Berantevillako Eta Zambranako, Udaletako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 20a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

N-124 ERREPIDEA, 25.5 KILOMETROTIK 31.9 KILOMETRORA, BIKOIZTEKO ETA AUTOBIA BIHURTZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE DESDOBLAMIENTO Y CONVERSION EN AUTOVIA DE LA CARRETERAN-124 PK 25.5 A PK 31.9

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA M ²			EGUNA	ORDUA	
		POLIGONOA	LURZATIA			TERMINO MUNICIPAL	BEHIN-BEHINEKOA	LURPEKO ZORTASUNA			SERVIDUMBRE SUBTERRANEA
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	DIA	HORA			
199/100	Martinez Montoya, Julián Pérez de Mendiguren Fernández de Larrea, Mercedes	1	253	Zambrana	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO		270		15/2/22	10:00	
157/100	Martínez Pérez de Mendiguren, Ignacio Ferreto Vara, J. Antonio	1	104	Zambrana	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO		90		15/2/22	10:45	
156/100	Vicario Varela, Pablo	1	105	Zambrana	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO		93		15/2/22	11:30	
14/100	ALISEDA SA	1	1435	Armiñón	HIRT LURRA / SUELO URBANO		496		15/2/22	13:30	
60/100	Ansoategui Angulo, Carlos Ignacio Ansoategui Angulo, J. Eugenio	1	37	Berantevilla	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO		123		16/2/22	10:00	
54/100	Comercial Raycofia, S. A.	1	40	Berantevilla	LABOREA / CEREAL	901		Regadio/3m 441	16/2/22	10:45	
58/100	Alonso Díaz de Sarraide, Salvador Pinedo Cerrillo, Ana María	1	38	Berantevilla	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO		97		16/2/22	12:00	
51/100	Alonso Díaz de Sarraide, Crescencia	1	41	Berantevilla	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO			Regadio/3m 546	16/2/22	12:45	
34/100	Perea Saenz de Santamaria, M. Isabel	1	94	Berantevilla	LABORE UREZTATUA / CEREAL REGADIO	830	3	Regadio/3m 372	16/2/22	13:30	